

Eibar-ko euskal festak

EUSKAL-ITZ JOSTALDIEN EGINTZA



EUSKAL-itz jostaldien Batzarrea dator gaur Eibarra, kontu ematera leku ontan arkitzen diran entzule guztiai, zer nolakoa dan, aurten, izkribatzalle, musikalaria, eta pintatzalleen indar-neurtzetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiz ikusi ondorean aurkestu diran moldaera guziak, irabazi dituzte sariyak, izkribatzalleen artean:

Gregorio Mujika, Karmelo Echegaray, Abelino Barriola eta Ramón Inzigaray jaunak, «Eibar-ko seme ospatzuen berri batzuek», «Donosti-ko Euskal-itz jostaldien Batzarrea» «Meza berriya» eta «Poza atozkit» izendatutako lan egokiagatik.

Irabazi dituzte aldeerak: Inazia Pradere eta Ramón Gelbenzu jaun andriak, «Eibar-ko seme argidotarrak» eta «Betiko pena» izentzat dituztenen gatik.

Irabazi dituzte bina aipamen onragarri: José Elizondo eta José Inazio Garmendia jaunak; lenbizikoak «Eibargatikan» eta «Gaon» izendua gatik, eta bestiak «Gipuzkoa-ko, euskerazko itz-jostaldien Batzarrearen bir osaera» eta «Lanaren goimenak» izentzat dituztenen gatik. Aipamen onragarri bana Enrike Elizechea, Jerónimo Elizegi eta José Olaizola jaunak, «Ordikeria» «Soilmena» eta «Markesa'ren alaba» izenekoak gatik.

Indar-neurtzez kanpora saritu da Erderaz eta euskeraz itz egiteko esku-liburua, Isaak Lopez Mendizabal jaunak egiña, eta Euskal errirako biar biarrekoa Batzarreak arkitu dubena.

Musikalarien artian irabazi dituzte sariyak José Maria Usandizaga eta Inazio Bereziartua jaunak «Euskal festara» eta «Uztaillaren 22^{an}» azalkaitzat dituzten moldaeragatik.

Pintatzalleen artian irabazi dituzte: lenengo caria Elias Salaverria; bigarrena Mauro Ortiz de Urbina eta irugarrena Luis Armengou jaunak. Beren lanen izenak dira: «*Nere Anayak*», «*Lartaun*» eta «*Gaztañak erretzen*».

Antzeztalarien artian sarituba izan da Juan Bautista Larreta jauna, «*Talo t'esne jalien alde*» azalkaitzat dituztela aurkestatu dituben antzera jator eta egokiagatik.

Bigarren sariya irabazi du Migel Agirre jaunak «*Nere lanak*» izentzat duten antzera gatik.

Eibarren, 1908ko Agorrillaren 6an

ALFREDO DE LAFFITTE Y OBINETA.
Dianagusia.

TORIBIO ALZAGA
Goarpelaria.

